



3. EBAZPEN-PROPOSAMENA, 2024ko abenduaren 27koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 2024-2025eko ikasturtean unibertsitateko eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka-deialdiari buruzkoa.

2024ko uztailaren 4ko aginduaren bidez (2024ko uztailaren 17ko EHAA), Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2024-2025eko ikasturtean unibertsitateko eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

2024ko uztailaren 4ko aginduak 37. artikuluan xedatutakoaren arabera, eratu diren hautespen-epaimahaiek banaka aztertu dituzte eranskinean adierazitako eskaerak eta aipatutako eskaerei buruzko ebazpen-proposamena egin da.


Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozeduraren gainontzeko arauak bete direnez,

PROPOSATZEN DUT

1.- Deialdi hori ebazteko 3. proposamenaren berri ematea 2024-2025eko ikasturtean unibertsitateko eta beste goi ikasketa batzuk egiteko deialdian parte hartzen duten eskatzaileei. Eranskinean, laguntzak emateko edo ukatzeko proposamena duten eskabideak zerrendatzen dira. Eskatzaileek beken aplikazioaren bidez eskura ditzakete eskabideari buruzko ebazpen-proposamenaren xehetasunak.

2.- 10 egun balioduneko epe bat irekitzea, ebazpen-proposamena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eranskinean aipatzen diren eskatzaileek beka emateko proposamenaren kontra alegazioak aurkezteko edo proposamena onartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 27a.


Sara Urionabarrenetxea Zabalandikoei
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE
ETA BERRIKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE CIENCIA,
UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN